

CARMEN RUIZ

Proiektu Integralak

Carmen Ruiz García Diseinu Grafikoan lizentziaduna da, eta 30 urte baino gehiago daramatza kulturarekin lotuta Mexikon eta Espainian, batez ere arte garaikidearekin.

Carrillo Gil Arte Garaikideko Museoko diseinatzaile grafikoa izan zen, eta Mexiko Hiriko Centro Histórico jaialdiko programazioaren koordinatzailea. Madrilgo Marlborough Galeriako zuzendariorde laguntzaile gisa lan egin zuen, eta Donostian, DV Galeriako erakusketen arduradun izan zen, 2004an Manifesta 5 Arte Garaikideko Europako Biurtekoaren komunikazio- eta kanpo-harremanen arduradun, eta Nazioarteko Zinemaldiaren 54. edizioaren eta Soinuaren Dimentsioa erakusketaren salmenta-bulegoaren koordinatzaile Koldo Mitxelena Kulturunean.

Mexikoko Gobernuko Kultura Idazkaritzako Arte Plastikoen Koordinazio Nazionalako nazioarteko gaietako kargua bete zuen. UNAM Mexikoko Unibertsitate Nazional Autonomoko Kultura Hedapenaren Koordinazioko nazioarteko gaien buruzagitzaz arduratzen da, eta bere gain hartzen du komunikaziorako, edizioetarako eta erakunde arteko harremanetarako zuzendaritza, 12 urtez, Ikusizko Arteen Zuzendaritza Nagusian eta MUAC - UNAM Arte Garaikidearen Unibertsitate Museoan, Mexiko Hirian.